

## DBH 3, 4 ETA BATX 1

### AURRE EZAGUTZA AKTIBATU!

**Bisitan etorri aurretik ikastetxean egitea gomendatzen dugu.**  
**Irakaslearentzako gidoia.**

Euskararen Etxera etorri aurretik gomendagarria da gaia ikastetxean jorratzea. Horren harira, ikasleek euskararen aniztasunaren jolasa egingo dute ikasgelan.

- IRAUPENA: 30 – 50 minutu
- JOLASAREN ESTEKA: <https://view.genial.ly/63f87cbc6e77df00190d1874>
- BEHARRAK: Ordenagailua, proiektorea, bozgorailua, orri zuriak, boligrafoak.

MEZU NAGUSIA: Hizkuntzak komunikatzeko tresna baino gehiago dira. Mundua ikusteko moduak jasotzen dituzte; beraz, gure bizitzak ikusteko hainbat manera eskaintzen dituzte.

NOLA JOLASTU: Esteka ireki eta argibideak jarraitu.

5-6 pertsonako taldeak osatu. Talde bakoitzak orri zuri bat eta boligrafo bat edukiko du. Helburua guztien artean galderaren erantzun zuzena lortzea da. Jolasterakoan, galdera bat azalduko da. Erantzuna adosteko eta idazteko minutu bat izango dute taldeek (*kronometroa diapositiba bakoitzaren gainkaldean*). Minutua amaitzean, talde bakoitzeko ordezkari batek, erantzuna esan beharko du ozen. Guztiak okerrak badira (*begiratu galdera-erantzun gidoia*), irakasleak 1 pista sakatu beharko du, eta beste minutu bat izango dute erantzuna berriro pentsatzeko. Minutua amaitzean talde bakoitzak berriro ere ozen esan beharko du erabakitakoa. Guztien arteko erantzuna okerra bada, bigarren pista klikatu, eta azken minutu bat izango dute erantzun zuzena lortzeko. Ondoren, ez badute asmatu, erantzun zuzena azalduko da. Amaieran, hitz bakoitzari buruzko azalpena jasoko dute audioen bitartez. Guztira hamar galdera izango dira.

## DBH 3, 4 ETA BATX 1

### GALDERA-ERANTZUN GIDOIA

1. Proposatuko zenituzkete ZIMISTA hitzaren bi sinonimo?  
ERANTZUNA: tximista/ oñesitu/ oñestari/ yusturi/ airegaixto...
2. Zer ote da...ORTZILLERIA?  
ERANTZUNA: ostirala/ barikue/ ortzilere/ ortziela/ egubakotx/ barikua/ barixaku/ barieku...
3. Ba al dakizue... KALAPITA hitzak zer esan nahi duen?  
ERANTZUNA: istilu/ iskanbila/ zalaparta/ zirriparra/ zaratots/ harrabots/ matraka/ zarata...
4. Zein animalia izendatzen ote du... OMU hitzak?  
ERANTZUNA: bale/ seroi/ zere/ balen...
5. Zer esan nahi ote du... ARMOSUE hitzak?  
ERANTZUNA: gosaria.
6. Zein urtaro ote da... UDAGOIENA?  
ERANTZUNA: udazkena
7. Zer esan nahi ote du... BIDXAU hitzak jarraian entzungo duzuen esaldi honetan?  
“Egunero *bidxaua* botatzea gustatzen zait.”  
ERANTZUNA: siesta/ bazkalosteko/ bazkalondo/ biao egin
8. Esango zenituzkete... HANKA hitzaren bi sinonimo?  
ERANTZUNA; izter/ ister/ zango/ berna/ txanka... (gehiago ere badaude!  
zangomakil/ankixter/ zangarrezur/ zankhoperna)
9. Esango zenituzkete... ANTXETA hitzaren bi sinonimo?  
ERANTZUNA: kaia, mueta, sardintxoria, moxoloa, gabaia... (gehiago ere badaude!  
burubaltxa, kalatxoria, itsas-txoria, marigero, marloi)
10. Zer esan nahi du PIURA hitzak esaldi honetan? “A ze *piura*, motel!”  
ERANTZUNA: itxura